*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

Murgian, bi mila eta hemeretziko urriaren hamarrean, arratsaldeko zazpiak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, Ohiko Bilkura egin da Udaletxeko Bilkura Aretoan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutiérrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura eta Susana Zubiaur Zorrilla andreak Udalbatzako idazkari-lanak egin ditu.

**ALKATEA**
DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK**
INMA ELORZA BERGARA AND. (EH Bildu)
AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA JN. (EH Bildu)
ITZIAR MENDIA CELAA AND. (EH Bildu)
NEREA IDIGORAS LASAGA AND. (EH Bildu)
ALAITZ TRESSERRAS ANGULO AND. (EH Bildu)
ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA AND. (ZUIA BAI)
JUAN CARLOS ALONSO MORAZA JN. (ZUIA BAI)
CONCHI LÓPEZ LÓPEZ AND. (ZUIA BAI)
ANDRÉS LAFUENTE OTXOA JN. (ZUIA BAI)
LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ JN. (PP)

Arratsaldeko zazpietan bilkura publikoa irekita, Lehendakaritzaren aginduz aurreikusitako gai-zerrenda landu, eta adierazten ditudan ondoko erabakiak hartu dira.

**1.- 2019.07.11N, 19:30EAN, ETA 2019.09.26AN EGINDAKO EZOHIKO ETA OHIKO BILKUREN AKTAK, HURRENEZ HURREN, ONARTZEA.**

En Murgia a diez de octubre de dos mil diecinueve, siendo las diecinueve horas, previa convocatoria cursada en forma legal, se celebró Sesión Ordinaria en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial con la asistencia de las personas de la Corporación que debajo se relacionan bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Unai Gutiérrez Urkiza, actuando de Secretario la de la Corporación, Dª Susana Zubiaur Zorrilla.

**ALCALDE**
DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)
**CONCEJALES Y CONCEJALAS ASISTENTES**
DOÑA INMA ELORZA BERGARA (EH Bildu)
DON AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA (EH Bildu)
DOÑA ITZIAR MENDIA CELAA (EH Bildu)
DOÑA NEREA IDIGORAS LASAGA (EH Bildu)
DOÑA ALAITZ TRESSERRAS ANGULO (EH Bildu)
DOÑA ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA (ZUIA BAI)
DON JUAN CARLOS ALONSO MORAZA (ZUIA BAI)
DOÑA CONCHI LÓPEZ LÓPEZ (ZUIA BAI)
DON ANDRÉS LAFUENTE OTXOA (ZUIA BAI)
DON LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ (PP)

Abierto el acto público a las diecinueve horas, por orden de la Presidencia se trató el Orden del día previsto, adoptándose los acuerdos que paso a reseñar.

**1.- APROBACIÓN DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES EXTRAORDINARIA Y ORDINARIA CELEBRADAS LOS DÍAS 11.07.2019 A**

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus ● Web: www.zuia.eus*

**LAS 19:30 HORAS Y 26.09.2019 RESPECTIVAMENTE.**

2019ko uztailaren 11ko 19:30ean eta irailaren 26an izandako Ezohiko eta Ohiko Bilkuren aktak, hurrenez hurren, ikusirik, alkatetzak azaldu du azken aztergaian, 10. Galderak eta eskaerak izenekoan, Sautu zinegotzi jaunak Ametzaga Zuia eta Gilierna HUAra lotzeko Proiektuari buruz galdetu zuenean, azken Batzar horretako lehendakaria izan zela jakinarazi zuena, eta ez bera, hurrengo astean bilera bat izango zela.

Udalbatzak aho batez onartu du aipatu aktak 2019.09.26koaren inguruan azaldutako zuzenketarekin.

Vistas las actas de las Sesiones Extraordinaria y Ordinaria celebradas el 11 de julio a las 19:30 horas y el 26 de septiembre de 2019 respectivamente, por parte de la Alcaldía se pone manifiesto que en esta última, en el punto 10. Ruegos y Preguntas, cuando el Concejal Sr. Sautu pregunta sobre el Proyecto de conexión a la EDAR de Ametzaga Zuia y Guillerna-Gilierna, fue el Presidente de esta última Junta quien informó que la semana próxima tendría una reunión y no él.

La Corporación por unanimidad aprueba las citadas actas con la corrección expuesta en lo que se refiere a la del 26.09.2019.

**2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK.**

Alkatetzak 2019.09.20ko 371. zk.ko dekretutik 2019.10.03ko 381.era arte eman dituen xedapenen berri eman da.

**2.- DECRETOS DE ALCALDÍA.**

Se da cuenta de las resoluciones dictadas por la Alcaldía desde el Decreto nº 371 de 20.09.2019 al 381 del 03.10.2019, dándose la Corporación por enterada.

**3.- POSTA OFIZIALA**

**3.1.- Arabako Foru Aldundia:**

- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak honako hauek jakinarazi ditu: 2019ko abuztuko derrigorrezko diru-bilketa eta 2019ko EJZ matrikularen onarpena.
- Gazteriaren Foru Erakundeak jakinarazi du 5.000 euroko diru-laguntza eman duela gazteentzako jardueretarako.
- Miñoien Zerbitzuak, 2019.10.06an izango den XXVII. Abere Azokan lagunduko duela jakinarazi du.
- Bide Azpiegitura eta Mugikortasun Sailak, A-3600 errepidean baimenik gabe jarritako 2 radar kentzeko errekerimenduaren aurka Udalak aurkeztutako errekurtsoa gaitzesten duen

**3.- CORRESPONDENCIA OFICIAL.**

**3.1.- Diputación Foral de Alava:**

- Hacienda, Finanzas y Presupuestos remite información de la recaudación ejecutiva de agosto 2019 y la aprobación de la matrícula del IAE ejercicio 2019.
- Instituto Foral de la Juventud comunica la concesión de subvención para actividades dirigidas a la juventud por importe de 5.000€.
- Servicio de Miñones comunica la colaboración en la XXVII Feria de ganado del 06.10.2019.
- Infraestructuras viarias y movilidad comunica la Orden foral que desestima el recurso interpuesto por el Ayuntamiento frente al requerimiento para la retirada de 2 radares instalados en la A-3600 sin permiso;

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus ● Web: www.zuia.eus*

Foru Araua jakinarazi du; alkateak berriz ere azaldu du batzordean esandakoa, hau da, errekerimenduaren ostean horien kokapena aldatu zutela errepideetako langileek adierazitako eremura, baina bulegoetan horren berri eman ez zenez, ebazpena aurreko kokapenaren ingurukoa dela.

el Alcalde reitera lo informado en la comisión, que tras el requerimiento modificaron la ubicación de los mismo al espacio indicado por el personal de carreteras, pero al no haber informado de ello en oficinas, la resolución se basa en la anterior ubicación.

**3.2.- Eusko Jaurlaritza:**

- Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak 2030ko Tokiko Agendaren agiria eta Udalsarea 2030 gidaliburu praktikoa (nola ekin garapen iraunkorrerako helburuak tokiko esparrutik) bidali ditu.
- Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetza Sailak jakinarazi du 12/2016 legearen babespeko giza eskubideen urraketaren biktimak aitortzeko eskabideak aurkezteko epea ireki dela.
- Hizkuntza Politikak, tokiko erakundeei artxiboetarako diru-laguntzak emateko ebazpenaren berri eman eta jakinarazi du Zuiari 5.000 euro eman zaizkiola dokumentu historikoak digitalizatzeko.

**3.2.- Gobierno Vasco:**

- Medio Ambiente, plantificación territorial y vivienda remite documento de la Agenda 2030 Local y como abordar los objetivos de desarrollo sostenible desde el ámbito local, gruía práctica Udalsarea 2030.

- Derechos Humanos, convivencia y cooperación informa la apertura del plazo para presentar solicitudes de reconocimiento de víctimas de vulneraciones de derechos humanos amparados por la ley 12/2016.
- Política lingüística comunica la resolución por la que se conceden subvenciones a entidades locales para los archivos y concede a Zuia 5.000€ para la digitalización de documentos históricos.

**4.- ERABILERA PUBLIKOKO 734. MENDIKO ARETXALTUAGA ETA PEPETXIKI ETA FRESNAL EREMUETAN BI APROBETXAMENDU ESLEITZEAGATIK GESTIÓN FORESTAL FRÍAS S.L. ENPRESAK UTZITAKO FIDANTZAK KITATZEA.**

**4.- CANCELACIÓN DE LAS FIANZAS DEPOSITADAS POR GESTIÓN FORESTAL FRÍAS S.L. POR LA ADJUDICACIÓN DE DOS APROVECHAMIENTOS EN EL MONTE DE U.P. 734 TERMINOS DE ARETXALTUAGA Y PEPETXIKI Y FRESNAL.**

Erabilera publikoko 734. mendiko Aretxaltuaga eta Pepetxiki eta Fresnal eremuetako aprobetxamenduen berme gisa utzitako fidantzak itzultzeko GESTIÓN FORESTAL FRÍAS S.L. enpresak aurkeztutako eskabideen berri eman da.

Se da cuenta de las solicitudes presentadas por GESTIÓN FORESTAL FRÍAS S.L. en petición de devolución de las fianzas depositadas como garantías de los aprovechamientos del monte de U.P. 734 términos de Aretxaltuaga y Pepetxiki y Fresnal.

Alkatetzak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz,

La Alcaldía, reiterando lo expuesto en la Comisión informativa, propone proceder a

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

fidantza horiek itzultzea proposatu du, Aldundiko Basozainaren aldeko txostenaren ondoren.

su devolución, una vez informado favorablemente por el Guarda de Montes de la Diputación.

Kontratua arautzen duten Administrazio Baldintzen Pleguko 5. baldintzan, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginak onartu zuen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 102. artikuluan eta Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamenduko 65.ean bermeak itzultzeari buruz xedatutakoa kontuan hartuta.

Considerando lo dispuesto en la cláusula 5 del Pliego de Cláusulas Administrativas reguladoras del contrato y los artículos 102 del Real Decreto Legislativo 3/2011 de 14 de noviembre por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público y 65 del Reglamento de la Ley de contratos de las Administraciones Públicas sobre devolución de garantías.

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

La Corporación por unanimidad ACUERDA.

LEHENENGOA: Erabilera publikoko 734. mendiko Aretxaltuaga eta Pepetxiki eta Fresnal eremuetan esleitutako baso aprobetxamenduko 2 loteen berme gisa GESTIÓN FORESTAL FRÍAS S.L. enpresak Caixabank S.A. eta Bankinter S.A. enpresen abalen bitartez (8.034,12 € eta 6.288,17 €, hurrenez hurren) utzitako fidantzak kitatu eta itzultzea.

PRIMERO: Cancelar las fianzas depositadas por GESTIÓN FORESTAL FRÍAS S.L. como garantías de los 2 Lotes de aprovechamiento forestales adjudicados en los términos de Aretxaltuaga y Pepetxiki y Fresnal mediante avales de Caixabank S.A. por importe de 8.034,12€ y Bankinter S.A. por importe de 6.288,17€ respectivamente, y proceder a su devolución.

BIGARRENA: Interesatuari ebazpen honen berri ematea.

SEGUNDO: Notificar esta resolución a la interesada.

**5.- 2020RAKO ZERGA ETA PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZA PROPOSAMENA.**

**5.- PROPUESTA DE ORDENANZAS FISCALES Y DE PRECIOS PÚBLICOS PARA 2020.**

Alkatetzak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, Zerga eta Prezio Publikoen Ordenantzak 2020. urterako aldatzeko EH-BILDU taldeak aurkeztutako proposamenaren berri eman du:

La Alcaldía, reiterando lo expuesto en la Comisión informativa, da cuenta de la propuesta que presenta el Grupo EH-BILDU de modificación de las Ordenanzas fiscales y de precios públicos para el año 2020:

**- Ondasun higiezinen gaineko zerga:**
- “Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza hutsen programa”-ren barruan lagatako etxebizitzei dagokien OHZren kuota

**- Impuesto de Bienes Inmuebles:**
- Aumentar la bonificación hasta el 50% de la cuota íntegra del impuesto para bienes inmuebles objeto de cesión en el marco del

osoaren hobaria %50era arte igotzea (orain %20eko hobaria du).
- Zergaren kuota likidoaren ehuneko berrogeita hamarrera arteko errekargua ezartzea, subjektu pasiboaren edo hirugarren batzuen bizilekua ez diren egoitza-erabilerako ondasun higiezinei, alokatuta edo erabiltzeko lagata egoteagatik. Eusko Jaurlaritzak xedatutakoaren arabera, beste batzuetan "jenderik gabeko etxebizitza" izendatu da.
- Ordenantzako 6. artikuluaren 5. atalean ezarritako gehieneko errenta-maila gainditzen duten familiei %25 eta %10 bitarteko hobaria kentzea.

**- Ekonomia Jardueren gaineko Zerga:**
- Udalerrian finkatu eta hiru langile finko baino gehiago sortzen dituzten enpresek ehuneko 50eko hobaria izango dute lehen bost urteetan.

**- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga:**
- 65 urtetik gorakoentzat eta ezgaitasuna duten pertsonentzat irisgarritasuna ahalbidetzeko berrikuntza kasuetarako aurreikusitako hobaria eraikinetan igogailuak edo jasogailuak jartzeko obretara zabaltzea, horietan horrelakorik ez dagoenean eta irisgarritasuna bermatzeko bada.
- Eraginkortasun energetikoko A edo B ziurtagiriak lortzeko eraikinetan egindako obrek ehuneko 1eko edo ehuneko 0,5eko murrizketa izango dute dagokien indizean.

**- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga:**
- %0, %2, %4, %6 eta %8ko mailakako igoera ezartzea potentzia tarte bakoitzean automobil eta motozikletetan, eta gainerakoei eustea dagokien ekonomia jarduerararen arabera.
- Ibilgailu historikoen hobaria kentzea (gaur egun %100ekoa), inola ere ez

“programa de vivienda vacía de Gobierno Vasco (actualmente bonificación 20%).
- Establecer un recargo de hasta el cincuenta por ciento de la cuota líquida del impuesto a los bienes inmuebles de uso residencial que no constituyan la residencia del sujeto pasivo o de terceras personas por arrendamiento o cesión de su uso. Lo que se ha llamado otras veces vivienda vacía, según lo dispuesto por Gobierno Vasco.

- Eliminar la bonificación del 25% y 10% a las familias que superasen el nivel de renta máxima establecida en el punto 5, artículo 16 de la ordenanza.

**- Impuesto de Actividades Económicas:**
- Todas aquellas empresas que se instalen en el municipio y que generen un número superior a 3 trabajadores fijos, tendrán una bonificación del 50 por ciento durante los primeros 5 años.

**- Impuesto de Construcciones, Instalaciones y Obras:**
- Ampliar la bonificación prevista para casos de reforma con motivo de accesibilidad para mayores de 65 años y para personas con minusvalía a aquellas obras que supongan la colocación de ascensores o elevadores en edificios que no tengan, para garantizar la accesibilidad.

- Las obras realizadas edificaciones para lograr certificados de eficiencia energética A o B, gozarán de una reducción del 1% o 0,5% en su índice correspondiente.

**- Impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica:**
- Establecer una subida porcentual escalonada del 0, 2, 4, 6 y 8% en los distintos tramos de turismos y motocicletas, manteniendo en resto por su actividad económica.
- Eliminar la bonificación de vehículos históricos (actualmente 100%), ya que no son

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus ● Web: www.zuia.eus*

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

direlako ibilgailu historikoak eta, gainera, kutsagarrienak direlako.

- Bost plaza edo gehiagoko ibilgailuarengatik familia ugariek jasotzen duten hobarian, diru-sarreren irizpidea izango da kontuan eta OHZn erabilitako taula berbera aplikatuko da.

**- Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga:**

- Lursailen eskualdaketetan, eta jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealen eskualdaketa edo eraketan aurreikusitako hobaria, heriotzagatik kosturik gabe eginak badira, ehuneko 100ekora areagotzea, eskuratzaileak lehen mailako ondorengo ahaide edo adoptatuak, lehen mailako aurreko ahaide edo adoptatzaileak eta ezkontidea edo izatezko bikotekidea badira (Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako izatezko bikoteak izanez gero).

**- Zerbitzuak emateagatiko tasa eta prezio publikoak:**

**1.- Ur Hornidura:** %10eko igoera kontsumo tarte bakoitzean:

- Seihilekoko 50 $m^3$ arteko zerbitzu kuota 0,252 €/$m^3$-tik 0,2772 €/$m^3$-ra igoko litzateke: 13,86 euro seihilekoan.
- 51 $m^3$-ratik 80 $m^3$-ra, 0,39 €/$m^3$-tik 0,429 €/$m^3$-ra igoko litzateke.
- 81 $m^3$-ratik 150 $m^3$-ra, 0,75 €/$m^3$-tik 0,825 €/$m^3$-ra igoko litzateke.
- 151 m3-tik gora, 0,94 €/$m^3$-tik 1,034 €/$m^3$-ra igoko litzateke.

Igoera portzentaje bera proposatzen da altako hornidurarako.

Era berean, etxebizitzen titularrek kontagailuen irakurketa jakinarazteko derrigortasuna proposatzen da, kontagailua eremu publikoan edo iristeko moduko tokian egon ez eta zerbitzuaz

en absoluto vehículos históricos y además son los más contaminantes.

- En la bonificación que reciben las familias numerosas por vehículo de 5 o más plazas, se tendrá en cuenta el criterio de ingresos, aplicando la misma tabla que en el IBI.

**- Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana:**

- Ampliar al 100% la bonificación prevista para las transmisiones de terrenos, y en la transmisión o constitución de derechos reales de goce limitativo del dominio, realizadas a título lucrativo por causa de muerte, cuando los adquirentes sean sus descendientes o adoptados en primer grado, sus ascendentes o adoptantes en primer grado, y el cónyuge o pareja de hecho, cuando se trate de parejas de hecho constituidas conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo

**- Tasas y Precios públicos por prestación de servicios:**

**1.- Abastecimiento de agua:** subida del 10% en cada franja de consumo:

- Cuota de servicio hasta 50 m3/semestre pasaría de 0,252€/m3 a 0,2772€/m3: 13,86 euros semestre.
- De 51 a 80 m3, de 0,39€/m3 pasaría a 0,429€/m3.
- De 81 a 150 m3, de 0,75€/m3 pasaría a 0,825€/m3.
- De 151 m3 en delante de 0,94€/m3 pasaría a 1,034€/m3

El mismo porcentaje de subida se propone para el suministro en alta.

Así mismo se propone la obligatoriedad de aportar la lectura de los contadores por parte de las personas titulares de viviendas cuyo contador no se encuentre en espacio público o accesible y respecto de los cuales la

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

arduratzen den enpresak irakurtzerik izan ez duenean.

**2.- Estolderia:** zerbitzu emateari %10eko igoera proposatzen zaio: 0,15 €/m3-tik 0,165 €/m3-ra igoko litzateke. Gutxiengoari igoera bera aplikatzea.

**3.- Arazketa:** %10eko igoera proposatzen da: 0,15 €/m3-tik 0,165 €/m3-ra igoko litzateke. Gutxiengoari igoera bera aplikatzea.

**4.- Zaborrak:** Partzuergoak tarifak %4 igotzeko egindako proposamena berrestea.

**5.- Udalaren Kirol Instalazioak:** Pertsona bakoitzeko bi euro kobratzea proposatzen da, eskola-taldeak udako eta igerilekuen denboralditik kanpo kirol-instalazioetan sartu eta horiek erabiltzeko

**- Jabari publikoa aprobetxatzeagatiko tasa:** postuen epigrafean udalaren intereseko hainbat ekitalditan ezarritako tarifaz salbuesteko aukera jasotzea proposatu dute.

Zuia Bai: Alonso zinegotzi jaunak, aipatu taldearen izenean, familia ugarientzako hobarietarako Ondasun Higiezinen gaineko Zergan aurreikusitako gehieneko errenten mugak eta hobari subjektiboetarako aurreikusitako errenta tarteak handitzea proposatu du, azken aldaketatik iragandako denbora kontuan izanda, hau da 2013tik; alkateak esan du Eustat kontsultatu eta ondorioztatu dutela 2013ko abendutik 2018ra arteko KPI 3,5 dela, baina lehenengoa ez da ados azaldu bere ustez 2013ko ekainetik 2019ko ekainera bitartekoa 4 delako.

Jarraian, Ircio zinegotzi andreak idazki bat irakurri du:

empresa encargada del servicio no haya podido realizar su lectura.

**2.- Alcantarillado:** para la prestación del servicio se propone una subida del 10%, de 0,15€/m3 pasaría a 0,165€/m3. Aplicar lo mismo al mínimo.

**3.- Depuración:** se propone una subida del 10%, de 0,15€/m3 pasaría a 0,165€/m3. Aplicar lo mismo al mínimo.

**4.- Basuras:** ratificar la propuesta del Consorcio de subir un 4% las tarifas.

**5.- Instalaciones deportivas municipales:** se propone el cobro de 2 euros por persona para la entrada y uso de las instalaciones deportivas por grupos escolares fuera de la temporada de verano y piscinas.

**- Tasas por aprovechamiento del dominio público:** proponen incluir en el epígrafe de los puestos la posibilidad de eximir del pago de las tarifas establecidas en determinados actos de interés municipal.

Zuia Bai: el Concejal Sr. Alonso en nombre del citado grupo propone incrementar los límites de las rentas máximas previstas en el Impuesto de Bienes Inmuebles para las bonificaciones a favor de familias numerosas y los tramos de renta previstos para las bonificaciones subjetivas, teniendo en cuenta el tiempo transcurrido desde la última modificación de los mismos que había sido en 2013; el Alcalde dice que consultado el Eustat resulta un IPC de diciembre 2013 a 2018 del 3,5, manifestando su desacuerdo el 1º al considerar como fechas junio 2013 a junio 2019 de donde resultaría un 4.

Seguidamente la Concejal Sra. Ircio da lectura a un escrito:

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus ● Web: www.zuia.eus*

*Gehiengo osoa lortu ondoren EH-BILDU taldeak udal honetan onartu duen lehen neurria zergak igotzea izan da.*
*Alde bakarrak erabakita eta gainerako udal ordezkariekin inolako adostasunera heldu gabe, zuiar guztiok ordaindu behar ditugun zerga eta tasa guztietan %10era arteko handitzea egin da, gaurko egunean 2019ko urte arteko KPI 0,5 izanda.*
*Paradoxikoa da kontuan hartzen badugu udal honen emaitza kontuko datuek "HIRU MILIOI EUROTIK" gorako saldo positiboa erakusten dutela eta, hala ere, hiritarrei zerga presio handiagoa eragin nahi diete, dirua biltzeko beharrak justifikatu gabe egonda ere.*
*Gizartean garrantzi handia duen beste erabaki bat da "hutsik dauden etxebizitzen" gainean zerga berria ezartzea, horien OHZ %50 arte igota, horren ondorioei buruzko xehetasunik azaldu gabe. Ez dugu ulertzen zergatik ordaindu behar duten beren katastro balioari dagokiona baino portzentaje handiagoa.*
*Eta historikotzat jotako ibilgailuen (25 urtetik gorakoak, horietako asko nekazaritza eta abeltzaintza sektorean erabiltzen direnak) gaineko zergaren hobaria kentzea, erabateko babesa sektore horrentzat.*

Alkateak erantzun du esaten dutena ez dela egia, edo aurkezten duten proposamenaren okerreko interpretazioa egiten dutela, bakarrik zerga bat igotzea proposatzen dutelako, trakzio mekanikoko ibilgailuen gainekoa, alegia, eta baita Ondasun Higiezinen gaineko zergaren zati bat ere, hots, hutsik dauden etxebizitzei eragiten diena. Tasak direla-eta, bere aburuz araudiak ezartzen duena betetzetik oso urruti gaude, hau da, zerbitzuen kostua estaltzetik, eta Otsoa Eribeko zinegotzi jaunak hutsik dauden etxebizitzen inguruan gehitu du Eusko Jaurlaritzaren araudiak berak salbuesten dituela hainbat kasu.

*La primera medida aprobada por EH-BILDU en este ayuntamiento tras haber obtenido la mayoría absoluta ha sido subir los impuestos.*
*De manera unilateral y sin ningún consenso con el resto de las y los representantes municipales, se pasa a realizar un incremento de hasta un 10% en los impuestos y tasas que todas las zuianas y zuianos debemos abonar, cuando el IPC interanual del año 2019 a fecha de hoy es del 0,5.*
*Resulta paradójico si miramos los datos de la cuenta de resultados del Ayuntamiento que arrojan un saldo positivo de más de "TRES MILLONES DE EUROS" y aún así pretenden ejercer una mayor presión fiscal en la ciudadanía, cuando las necesidades recaudatorias no están justificadas.*
*Otra decisión de gran calado social es la instauración de un nuevo impuesto sobre sus llamadas "viviendas vacías" de hasta un 50% de incremento del IBI, sin presentar ningún detalle sobre su implicación. No entendemos por qué han de pagar más porcentaje que el que corresponde a su valor catastral.*
*Y la desaparición de la bonificación en el impuesto de vehículos para los considerados históricos, los de más de 25 años, muchos utilizados en el sector agrícola y ganadero, todo un apoyo a este sector.*

El Alcalde responde que no es cierto lo que dicen, o hacen una interpretación errónea de la propuesta que presentan, porque únicamente proponen subir un impuesto el del vehículos de tracción mecánica y una parte del de Bienes inmuebles que afecta a las vivienda vacías; respecto a las tasas, piensa que estamos muy lejos de cumplir lo que exige la normativa, que es cubrir el costo de los servicios, añadiendo el Concejal Sr. Otsoa Eribeko que en lo que se refiere a la vivienda vacía, la propia normativa de Gobierno Vasco excluye determinados supuestos.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

Azkenik, alkateak bozketaren proposamena zehaztu du: azaldutako EH-BILDU taldearena eta hiri ondasunen gaineko Zergaren familia ugarientzako hobarien eta hobari subjektiboen atalean aurreikusitako errenten ehuneko 3,6ko igoera.

Idazkaritzaren txosten IKUSIRIK.

Udalbatzak, gehiengoz, hots, EH-Bildu (6) taldeko zinegotzien aldeko botoarekin eta gainerakoen aurkakoarekin ondorengoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Ondorengoak arautzen dituzten Ordenantzen aldaketa behin-behinekoz onartzea, ondoren zehaztu legez: Ondasun higiezinen gaineko zerga, Ekonomia jardueren gaineko zerga, Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga, Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, Zerbitzu publikoak eman eta administrazio ekintzak gauzatzeagatiko tasak Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatiko tasak eta Zerbitzu publikoak eman eta administrazio ekintzak gauzatzeagatiko prezio publikoak.

BIGARRENA: Espedientea hogeita hamar egunez jendaurrean jartzea, iragarkia ALHAOn eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuz. Epe horretan zehar egoki irizten dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte interesatuek.

HIRUGARRENA: rreklamaziorik egon ezean erabaki hau behin betikotzat jotzea eta, egotekotan, beste erabaki bat hartzea.

Finalmente, el Alcalde detalla la propuesta de la votación: la del grupo EH-BILDU que se ha expuesto y el incremento del 3,6 por ciento de las rentas previstas en el apartado de Bonificaciones a familias numerosas y subjetivas del Impuesto sobre bienes de naturaleza urbana.

Visto el informe de Secretaría.

La Corporación por mayoría, con el voto favorable de los Concejales de EH-BILDU (6) y el voto en contra del resto, ACUERDA:

PRIMERO.- Aprobar provisionalmente la modificación de las Ordenanzas reguladoras del Impuesto sobre bienes inmuebles, Impuesto sobre actividades económicas, Impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras, Impuesto sobre el incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana, Impuesto de vehículos de tracción mecánica, Tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas, Tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público y la de Precios públicos por prestación de servicios y realización de actividades, conforme seguidamente se detalla.

SEGUNDO: Exponer el expediente al público por el plazo de treinta días, mediante anuncios publicados en el BOTHA y en el tablón de edictos del Ayuntamiento durante los cuales podrán las personas interesadas presentar cuantas reclamaciones estimen pertinentes.

TERCERO: Considerar este acuerdo como definitivo si no hubiera reclamaciones y si las hubiera adoptar nuevo acuerdo al respecto.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus ● Web: www.zuia.eus*

LAUGARRENA: Behin betiko erabakia arauzko modu eta epean argitaratzea.

BOSGARRENA: Unai Gutiérrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordez ari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren agiriak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkaritzan.

ALDAKETAK

**Ondasun higiezinen gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza**

VII. Hobariak eta *Errekarguak*
**16. artikulua:**
………..
5. Familia ugarientzako hobariak.

Familia ugarien ohiko bizilekua diren etxebizitzek Zergako kuotaren ehuneko 90eko eta ehuneko 50eko hobaria izango dute, hurrenez hurren, maila bereziko familia ugariak (bost seme-alaba edo gehiagokoak eta lau seme-alaba dituztenak, horietatik hiru haurgintza, adopzio edo harrera iraunkor edo adopzioaren aurreko harrera anizkoitzetik badatoz) edo maila orokorrekoak (gainerako familia unitateak) diren, baldin eta jarraian zehazten diren errenta mailak ez badira gainditzen eta haiek emateko arrazoi izan ziren baldintzak mantentzen badituzte.

Familia ugariaren gehieneko errenta eskuragarriak (zerga-oinarria joko da errentatzat, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauaren 71. artikuluan aipatzen diren pentsio konpentsatzaileen eta urteko mantenuen kenketa egin ondoren) ezingo ditu ondorengo zenbatekoak gainditu:

CUARTO: Publicar el acuerdo definitivo en la forma y plazo reglamentarios.

QUINTO: Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya para que en nombre y representación del Ayuntamiento formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de este acuerdo.

MODIFICACIONES

**Ordenanza fiscal reguladora del impuesto sobre bienes inmuebles**

VII. Bonificaciones y *Recargos*
**Artículo 16**
**…………**
5. Bonificaciones a familias numerosas.

Las viviendas que constituyan la residencia habitual de familias numerosas disfrutarán de una bonificación del 90 por ciento y 50 por ciento en la cuota del impuesto según se trate, respectivamente de familias numerosas de categoría especial (cinco o más hijos y las de cuatro de los cuales tres procedan de parto, adopción o acogimiento permanente o preadoptivo múltiples) o de categoría general (las restantes unidades familiares), siempre que no se superen los niveles de renta que se detallan a continuación y mantengan las condiciones que motivaron su concesión.

La renta máxima disponible de la familia numerosa, entendiendo por renta la base imponible minorada en la reducción por pensiones compensatorias y anualidades por alimentos a que se refiere el artículo 71 de la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del impuesto sobre la renta de las personas físicas, no deberá superar las cantidades siguientes:

| KIDE KOPURUA<br>NÚMERO MIEMBROS | GEHIENEZKO ERRENTA (EUROTAN)<br>RENTA MÁXIMA (EUROS) |
|---|---|
| 3 | *32.530* |

| | |
|---|---|
| 4 | *34.447* |
| 5 | *35.260* |
| 6 | *38.073* |
| 7 | *39.886* |
| 8 | *41.699* |
| 9 | *43.408* |
| 10 | *45.118* |
| 11 | *46.827* |
| 12 | *48.537* |

Atal honetan adierazten den hobaria ezartzen den ekitaldiaren aurreko azkenaurreko urtean lortutako errentak hartuko dira kontuan.

6. Hobari subjektiboak.

Zerga honen subjektu pasiboek, beraien ohiko bizilekua diren etxebizitzen jabeak badira, Zergako kuotan hobaria izango dute ondoko zenbakietan adierazten diren baldintzetan, bertan ezarritakoaren arabera.

Hobaria zergako kuota osoaren gainean aplikatuko da, familia unitatearen diru sarreren arabera, eta idatz zati honetako 4. puntuan jasotzen den taulari jarraituz.

Hobariak baldintza hauek betetzen dituzten familia unitateei bakarrik aplikatuko zaizkie: etxebizitza bakar baten jabeak izatea eta, gainera, hori beraien ohiko bizilekua izatea, zerga legeriak definitzen duen moduan. Familia unitatea osatzen duten kideek titular moduan dauzkaten ondasun higiezin guztien katastro balioak ezin izango du 420.000 euroko kopurua gainditu.

Hobariaren zenbatekoa ondoko taula honetan adierazten dena izango da:

A estos efectos se tendrán en cuenta las rentas obtenidas en el segundo año anterior al periodo en que se vaya a aplicar la bonificación a que se refiere este apartado.

6. Bonificaciones de carácter subjetivo.

Los sujetos pasivos de este impuesto que sean propietarios de viviendas, que constituyan la residencia habitual de los mismos, gozarán de bonificación en la cuota del impuesto en los términos señalados en los números siguientes, de acuerdo con lo que en ellos se establece.

La bonificación se aplicará sobre la cuota íntegra del impuesto, de acuerdo con los ingresos de la unidad familiar, y según la tabla contenida en el punto 4 de este apartado.

Las bonificaciones sólo se aplicarán a las unidades familiares que resulten propietarias de una única vivienda y que además constituya su residencia habitual en los términos definidos por la legislación fiscal. El valor catastral de la totalidad de los bienes inmuebles de los cuales sean titulares los miembros que integran la unidad familiar no podrá superar la cuantía de 420.000 euros.

La cuantía de la bonificación será la señalada en el cuadro siguiente:

| | **T-0** | **T-1** | **T-2** | **T-3** |
|---|---|---|---|---|
| Familia-unitatearen kide-kopurua | *< 14.504 euro* | *14.505-17.405 euro* | *17.406-20.513 euro* | *20.514-21.756 euro* |
| 1 edo 2 | ehuneko 75 | ehuneko 65 | ehuneko 50 | ehuneko 30 |
| 3 | ehuneko 80 | ehuneko 75 | ehuneko 60 | ehuneko 40 |
| 4 | ehuneko 95 | ehuneko 85 | ehuneko 75 | ehuneko 50 |

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

| | **T-0** | **T-1** | **T-2** | **T-3** |
|---|---|---|---|---|
| Nº miembros unidad familiar | *<14.504 euros* | *14.505-17.405 euros* | *17.406-20.513 euros* | *20.514-21.756 euros* |
| 1 ó 2 | 75 por cierto | 65 por ciento | 50 por ciento | 30 por ciento |
| 3 | 80 por ciento | 75 por ciento | 60 por ciento | 40 por ciento |
| 4 | 95 por ciento | 85 por ciento | 75 por ciento | 50 por ciento |

7. Zergaren kuota osoaren *ehuneko 50eko* hobaria finkatu da abenduaren 30eko Eusko Jaurlaritzaren 316/2002 Dekretua arautzen duen hutsik dagoen etxebizitzaren programaren eta udal edo foru etxebizitzen plan eta programen esparruan lagatzen diren ondasun higiezinen kasuan.

***17. artikulua:***

*Zergaren kuota likidoaren ehuneko berrogeita hamarrera arteko errekargua ezartzea subjektu pasiboaren edo hirugarren batzuen bizilekua ez diren egoitza-erabilerako ondasun higiezinei, alokatuta edo erabiltzeko lagata egoteagatik, beste batzuetan hutsik dagoen etxebizitza izendatu dena, Eusko Jaurlaritzak xedatutakoaren arabera.*

